



Hydrosense

BALIO PROPOSAMENA:

Gure produktuak negutegietako ureztatzearen kudeaketaren arazoa konpontzen du, ura alferrik galtzea eta laboreak ez ureztatzea saihestuz. Askotan, nekazariak ezin dituzte ur-mailak etengabe monitorizatu, eta horrek estres hidrikoa eragiten du landareetan edo baliabidearen erabilera ez-eraginkorra. Gure sistemak denbora errealean abisatzen du ur-maila baxua denean, eta ureztatze egokia eta eraginkorra ahalbideratzen du. Horri esker, laborantzen osasuna hobetzen da eta baliabide hidrikoaren kudeaketa jasangarriagoa bihurtzen da.

Epe luzera kostuak murriztuz eta ekoizpenaren kalitatea handituz. Gainera, sistema honek nekazariari denbora aurrezten dio eta kontrol handiagoa eskaintzen dio ekoizpen prozesuaren gainean. Gure makinak oso noizean behin ura erabili behar dugu lurra ureztatu ahal izateko, horregaitik uraren erabilpen arduratzu bat sustatzen dugu, bakarrik elikagaiak beharrezkoa duten ura emanaz denbora guztian.



Zertan desberdintzen gara:

-Berrikuntza: Nekazaria automatikoki ohartarazten duen aplikazio mugikor batera konektatutako sentzore adimendunak erabiltzen ditugu, negutegian fisikoki presente egon beharrik gabe.

-Arriskuak murriztea: Ur faltagatik labore-galerak prebenitzen ditu eta baliabide hidrikoa gehiegi edo behar ez bezala erabiltzea saihesten du.

-Gure produktuak ureztatzearen kudeaketa adimentsua eta pertsonalizatua eskaintzen du, nekazariak negutegietan duten esperientzia eta emaitzak nabarmen hobetzen dituen.



Hydrosense

-Erabilerraztasuna: Interfaze intuitiboa eta edozein smartphonetik erabiltzeko modukoa, berehalako jakinarazpenekin.

-Prezio lehiakorra: Nekazari txiki eta ertainentzako arrazoizko kostuaren konponbide eraginkorra eskaintzen dugu.

Ezaugarri nabarmenak:

- Hezetasun-sentsore zehatzak eta ur-maila.
- Alertak denbora errealean app mugikor bidez.
- Erraz instalatzea eta mantentzea.
- Hainbat negutegi eta labore motatara egokitu daiteke.
- Euskarri tekniko pertsonalizatua.



Plangintza etorkizunean:

Gure hasierako plangintza, Espainian bakarrik egiten hasiko gara eta jendeari gustatzen bazaio eta balorazio onak jasotzen baditugu beste herrialde batzuetara zabalduko dugu gure makina.

Bezeraentzako balioa:

Gure sistemak kalitatezko produktuak eta segurtasuna ematen ditu ureztatzearen kudeaketan, laboreak hobeto zaintzen direla eta ura eta baliabideak nabarmen aurrezten direla ziurtatuz. Horrek esan nahi du nekazariak produktibitate eta errentagarritasun handiagoa duela.